

“GETXO SHOP & MUSIC” PROIEKTUAREN OINARRIAK

GETXO ENPRESAK (Getxo Enpresariala eta Komertziala) **GETXO SHOP & MUSIC** proiektua antolatu eta gauzatzen du, **Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren, Vinilo FM, Ixi Wood** eta **Kaiku** enpresen laguntzarekin, Getxoko merkataritzako hiri-ingurunea dinamizatzeko asmoz.

JARDUERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

- 1 Publikoak aukera izango du **udalerriko merkataritza gune desberdinetan** egingo diren **musika zuzeneko ekitaldiak doan gozatzeko**.
- 2 **5 sari emango dira**, eta horietako **3** musika ekitaldiak (programarako esteka) egingo diren guneetako **enpresa edo establezimenduetan (Getxo Enpresari atxikita badaude)** azaroaren **9an eta 10ean** erosketak egin edo **jan-edariak kontsumituko dituzten bezeroen artean zozkatuko dira**, establezimendu horiek garatzen duten ekonomia-jardueraren sektorea edozein dela ere: **MERKATARITZA, OSTALARITZA eta ZERBITZUAK**. Enpresa horiek gure elkarteko kideak direla egiaztatzen duen **bereizgarri bat izango dute**. Bereizgarria jarraian ezarritakoa izango da:



- 3 Gainerako **2 sariak** [Facebook](#) eta [Twitter](#) profiletan argitaratuko ditugun albisteak –**proiektu honi buruzkoak**– **partekatuko dituztenen artean zozkatuko dira**.
- 4 Irabazleak zozketa bidez aukeratuko dira: bezeroek gure Elkartearen egoitzan (Arene kalea, 22) entregatutako ticketak eta/edo fakturak ausaz aterako dira, **baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte**:
 - * Erosketa edo kontsumoa azaroaren 9an eta 10ean egin behar da.
 - * Erosketa edo kontsumoa gure Elkarteko kide diren enpresetan egin behar da. Zein establezimendu diren jakiteko, aurreko paragrafoetan azaltzen den bereizgarri bat izango dute ondo ikusten den toki batean jarrita, kidetasuna egiaztatzen duena.

- * Ticketean edo fakturan erosketa egin den eguna adieraziko da, baita establezimenduaren izena eta IFK zenbakia ere; horrez gain, bezeroarekin harremanetan jartzeko datuak jasoko dira: izena, helbidea eta telefono-zenbakia.

- 5 Sare sozialei loturiko sarien irabazleak ere zozketa bidez aukeratuko dira: ausaz aterako dira [Facebook](#) edo [Twitter](#) bidez proiektuari buruzko albiste gehien partekatu edo birtuiteatu dituztenen artean.

SARIAK

AZAROAREN 9AN ETA 10EAN ZERBAIT EROSI EDO KONTSUMITU DUTEN BEZEROENTZAT:

1. **saria:** eguzkitako betaurrekoak + esne produktu sorta bat
2. **saria:** eguzkitako betaurrekoak
3. **saria:** esne produktu sorta bat

SHOP & MUSIC EKITALDIAREN BERRIAK FACEBOOK ETA TWITTER BIDEZ PARTEKATU DITUZTENENTZAT:

Facebook: eguzkitako betaurrekoak + esne produktu sorta bat

Twitter: eguzkitako betaurrekoak + esne produktu sorta bat

ZOZKETETAKO IRABAZLEAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Egingo diren zozketa bietako bakoitzeko honako irizpide hauek ezartzen dira:

AZAROAREN 9AN ETA 10EAN ZERBAIT EROSI EDO KONTSUMITU DUTEN BEZEROENTZAT:

GETXO ENPRESA ekimenean parte hartzen duela egiaztatzeko bereizgarria eramaten duten eta musika-ekitaldiak egiteko guneetan dauden establezimenduetan zerbeit erosi edo kontsumitu duten bezeroek ticket edo fakturak GETXO ENPRESA Elkartearen egoitzan (Arene kalea, 22) entregatuko dituzte, 08:30etik 17:30era, agiri honen "Jardueraren ezaugarri nagusiak" ataleko 4. puntuan ezarritakoa kontuan hartuta, azaroaren 15era arte, egun hori barne.

Bezeroek musika-ekitaldiak egingo diren egun bietan jasotako ticket eta/edo faktura guztiak aurkeztu ahal izango dituzte, baina ezingo dute sari bat baino gehiago eraman.

Sarituko diren ticket edo fakturak azaroaren 16an zozkatuko dira, Elkartearen egoitzan (Arene kalea, 22).

SHOP & MUSIC EKITALDIAREN BERRIAK FACEBOOK ETA TWITTER BIDEZ PARTEKATU DITUZTENENTZAT:



Azaroaren 10a baino lehen, Facebook edo Twitter profiletan, hurrenez hurren, sare sozial horietan argitaratuko ditugun albisteak –GETXO SHOP & MUSIC proiektua dela eta– partekatu edo birtuiteatuko dituztenek sariak eskuratzeko aukera izango dute.

Irabazleak zozketa bidez aukeratuko dira: ausaz aterako dira, Facebooken eta Twitterren, hurrenez hurren, proiektuari buruzko albiste gehien partekatu edo birtuiteatu dituztenen artean.

Zozketen irabazleak GETXO ENPRESAren webgunean agertuko dira (www.getxoenpresa.com) eta gure sare sozialen bidez aditzera emango dira: [Facebook](#)en eta [Twitter](#)ren.

SARI-BANAKETA

Sariak azaroaren 19an eta 20an emango dira, Elkartearen egoitzan (Arene kalea 22, Getxo), 08:30etik 17:00etara.

GETXO ENPRESA irabazleekin harremanetan jarriko da.

Saria entregatzeko, ezinbestekoa izango da saritutakoa edo hark izendatutako pertsona bat azaroaren 19an edo 20an hurbiltzea eta tokatu zaion saria jasotzea.

Sari bat ere ez da eman gabe geratuko.

Zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek osorik onartzen direla, baldintzarik gabe. Gainera, Getxo Enpresak, erakunde antolatzailea izanik, oinarri hauetan aurreikusitako gabeko edozein gairi buruz erabakia hartzeko eskubidea gordetzen du.

GETXO ENPRESAK, G48204655 IFK, zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna denak, jakinarazten dizu, 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babesaren Araudi Orokorrean adierazitakoaren arabera, zure datu pertsonalak jaso eta tratatzeko orduan araudi horrek finkatutako neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak aplikatzen dituela, arduradunaren produktu eta zerbitzuak eskaintzeko asmoz, baita edonolako jakinarazpen bidaltzeko asmoz ere, hartara izendatutako bitartekoen bidez. Zuk, ukitutako edo interesdun gisa, eta datuen titular gisa, zeure adostasuna eta baimena ematen dituzu datuok arduradunaren datu-basean sartzeko. Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, mugatzeko, lekualdatzeko eta aurka egiteko eskubideak dohainik bete ditzakezu, arduradunarengana joz: Arene kalea 22, Getxo, 48991, Bizkaia. Gutunean "RGPD" (Datuen Babesaren Araudi Orokorra) idatzi beharko duzu.